

alemania-tik

Askotan entzunda neukan gogojardumen akabere-tan adibide auxe: ba zan gerratean nunbait (predikat-zailleak oso zuhur izaten dira) eliza bat, eta bonbardeo batean, eliza dena birrindu zaneko batean, ez-tanda batek esku biak ausi zizkion aldare nagusiko Kristoari.

Historia korriente bat, beste ainbeste antzekoren gisakoa. Nik beñiepein asma-zio uts edo fabula apaintzat artzen nuen historia. Poetaren batek edertua, gaiñe-ra, pentsatzen nuen: eliza berritu zutenean ez omen zioten beso berririk jarri Kristoari, itz oek baizik: "nik ez daukat zureak beste besorik".

Münster-ko St. Ludgeri elizak itxura ederra erakusten du kanpotik. Arratsaldean, Promenadea aurrera ibiltzen aspertu naizenean, eliza ontan sartu irten bat egitea bururatu zait. Biar ez dago eskolarik eta adiskide ingeles batekin egon nai nuke gaur illuntzan.

Ludgeri elegantea da, fiñia. Torreputan Karlos Aundiaren irudiak erria zaindu-edo ez dakit bijilatunai luke oraindik. Sartu naiz, eta Alemanian eundik larogeitamar elizatakkoa bera gertatu zait emen ere: eliza ok, berriz altxatu dituzte bai, baiña illak aurkitzen ditut. Anima falta zaie, giroa, zerbait esan ezifia, baiña

sentimentu estetiko ta erlijiosoak faltan aurkitzen dutena. Gerra ondoan Alemaniak egiten duen ildako mundu bati bizirik iraunarazteko alegin alperra dirudi arri berrizko romaniko onek. Pixka bat grotesko aurkitzen dut nik, bere ederean ere. Eta koru gotiko erreberritua otz gelditzen da.

Otza dago Ludgeri, kondaira ospetsu bikain baten illobi esango litzake. Eta ara eskifia batean, txukun txukun, nire Kristoa. Ez nuen espero! Apika arritu ezezik izutu ere egin naiz. Gezur bat uste nuena egiazko topatzean fantasmaren bat iruditu zait agian. Edo egia zana ez sinistek errespeto falta inpresioa eman. Alare, emen dago Kristo ausia, auxe da, eta egia da: besorik gabe eta biotzaren parean bonba zipriztin batek egindako zulo zakarra, lantzadaren orde. Kasi ezin nuen sinistu, eta belaunikatu egin naiz, zergatik jakin gabe.

Nire ondoan andre bat belaunikatu da, edade xamarrekoa, gurutzearen oiñetan kandela bat piztu ondoren. Miñutu pare baten ondoren zerbait galdetu diodanean —ez dakit zeatz zer— egoskor erantzun dit orratioxe! Laiko jantzita nago, apaiz jantzian egon banintz oso bestela erantzungo zidakean noski. Guztiz normalea. Kristorekin batean mundu au ere berpiztu omen baita, baiña... Kristo berrriak omen gera ere. Alabaiñan...

(Ni beintzat ez nintzake ausartuko esaten ifñoren berpizkundera irabazi dudarik. Obe ifñor ez juzgatu. Obe ta justiziazko. Binbitar-

tean, alare, ta geure kulpa utsez, eliza au bezala dago gure fedea mundu berpiztuan: milla konzepto ederren eta bi milla asmo ederragoen illobi edo artxibo eginda).

Nire adiskide inglesak antropologia ikasten du eta begiko ditu euskaldunak, Afrikarako asmotan da orain. Erlijioaz jardun geranean, onek ez duela gaur ezker munduan zer egiñik esan dit. Ala sinisten du berak.


—Zer signifikatzen dute gaurko gizonarentzat zuen sinboloek? Berpizkunde, salbazio, jatorrizko pekatu, zeru, adorazio: noizpaiteko kulturetan izan duten barne konkretoa ustutzen joan zitezaien. Eragiñik gabeko ideiak dituzu gaur. Nun dute gaurko gizonaren egunero izkuntzan itzokabidari? Eta itzokin batera munduaren ikuskera bat galdu omen da betiko, ikasle inglesaren iritzian.

Camus-ek bezala, antropologia ikasleak ere “santu” izateko ez dagoela fede berririk pentsatzen du. Zer dauka erlijioak oraindik munduari esateko?, galdetzen zidan. Ezer ez, jakintzak, kulturak, arteak, gizonaren sorkundeok eskeifil ez dezaioketenik. Edo esperantzaz, salbazioaz mintzatuko zaio, gure munduak ulertzen ez duen zerbaitez nolainai ere. Mundu au arena izango da, alegia, gizona serbitzen eta obetzen duenarena. Naiz komunismo naiz teknika naiz edozer, gizona ongien serbitzen duenarena, ez filosofia edo erlijio ederrarenarena. Gaiñera, gizona serbitzeko erlijioa bearrezko dalakoa aspaldian izan da gezurtatua.

Orduak egon gera elkar

izketan. Eta agurtu naue-nean erantsi dio oraindik: ez dakit zorion bat ala zoritxarrik txarrena ote dan iflori inporta ez dionaz ain arduratzen zerala.

Etxera bidekoan berriz pasa naiz Ludgeri ondotik. Jendea zinera doa. Lirain, kaleko argietatik gora, torre zurixkaren koroe beltza. Emen saiatu zan Ludgeri gotzaia Karlos Aundia armekin ez bezala saxonak zibilizatzen. Emen Bernlef bertsolariitsuak, etxerik etxe, persekuzio denporan, kantatu zuen ebanjelioaren poza. Emendik artu zuen Edith Stein-ek Ausschwitz-



st. ludgeri elizatik

eko preso-zelai bidea. Emen pasa zan gerra, dena kixkalduz. Dena galdu ote da?

Ez, fedearen mundu au ez da betiko galdu. Nork ez du ikusten, alare, adiskide inglesak dioena: mundu au ongien serbitzen duenarena izango da? Bitartean, illunpetan gelditu da Ludgeri-ko Kristoa. Eztanda kaskote batek bularra urratu ziona, eta besorik gabe. Mundu onen berpizkunderako, askatasun eta maitasunerako, pozerako, ederrera-ko, gure zai. Nire zai, eta egoskor erantzuten duen andrearen zai. Eta antropologia ikaslearen zai. Illunpetan, argia ekartzera etorri zana, ze: **Nik ez daukat zue-nak beste besorik.**

aita
azurmendi